

**GENERO BERDINTASUNEKO PLANA**

**Departamentua:** 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA  
**Atala:** 0301 - Zainketa eta Gizarte Politiketako Zerbitzu Orokorrak  
**Programa:** 010 - Zainketa eta gizarte-politiketako zerbitzu orokorrak  
**Funtzionala:** 920 - Administrazio orokorra

**GENERO BERDINTASUNEKO PLANA**

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Departamentu honetan emakumeak gehiengoa dira lantaldean. Aurrekontu-programa honetako kredituak 1. kapituluko kredituetan banatzen dira. Horren bidez, langileen gastua finantzatzen da, bai Idazkaritza Teknikoan sartzen denarena, bai departamentuko diputatuaren konfiantzazko taldearena, eta baita diputatuaren ordainsariak ere. Gastuak 2. kapituluan dira, langile horien guztien joan-etorriak, ostatua eta mantenua, eta langile horien lanerako eta eraikinaren funtzionamendu orokorrerako beharrezkoak diren hornidurak, eta 6. kapituluan, langile horien lanerako ezinbestekoak diren aplikazio eta ekipo informatikoak. Horregatik, gastuaren izaera eta berdintasunezko baliabideetarako sarbidea, generoarekiko independentea dela, kontuan hartuta, aurrekontu-programari esleitutako genero-garrantzi handiko kalifikazioa nekez uler daiteke.

**Kuantifikazioa:** 0,00 ( % 0,00 )

**Ordainketa kredituak:** 0,00 ( % 0,00 )

**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA  
**Atala:** 0310 - 2030 Agendako, Berrikuntzako eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 100 - Agenda, Berrikuntza eta Ebaluazioa  
**Funtzionala:** 231 - Gizarte ekintza

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Saileko pertsonak, hirugarren sektoreko eragileak, zerbitzuak ematen dituzten enpresak eta erakundeak, Gipuzkoako gizartea, oro har.

**Kuantifikazioa:** 74.956,29 ( % 0,62 )

**Ordainketa kredituak:** 74.956,29 ( % 0,72 )

**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

|                       |                                                                           |
|-----------------------|---------------------------------------------------------------------------|
| <b>Departamentua:</b> | 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA                      |
| <b>Atala:</b>         | 0320 - Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia |
| <b>Programa:</b>      | 200 - Desgaituen laguntza                                                 |
| <b>Funtzionala:</b>   | 231 - Gizarte ekintza                                                     |

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

### Programak ukitzen duen kolektiboa:

Behar bereziak dituzten pertsonak (desgaituak, genero indarkeriaren biktimak, etab )

### Programak ukitutako gaitasuna(k):

Zainketa egokiak jasotzea

### Beharraren deskribapen xehatua:

Lehenik eta behin, adierazi behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak mendekotasuna duten pertsonen eskaintzen dizkien baliabideak, logikoa denez, mendetasun-maila baloratzeko eskaeraren bidez eskuratzen direla. Horri dagokionez, 65 urtetik beherako pertsonen taldean, oro har, emakumeek gizonek baino beranduago lortzen dute balorazioa.

Zehazki, balorazioa duten gizonen eta balorazioa duten emakumeen arteko proportzio erlatiboa erreferentziatzat hartuta, ikusten da gizonen ehunekoa emakumeena baino %22 handiagoa dela, eta alde hori 3-6 urteko adin-tartean hasten dela (%52), gaztaroan mantentzen dela (% 47 12-17 adin-tartean), eta pixkanaka % 22ra jaisten ari dela 60-64 adin-tartean.

Profil hori bera ikusten da, are gehiago, mendekotasun-kalifikazioa lortzen duten pertsonen proportzioan. 3-6 urteko tartean mendeko haurren artean %143 mutil gehiago daude, 7-11 tartean %116 gehiago, eta gero desoreka leuntzen ari da, 60-64 tartean %24ra jaitsi arte.

Baliabideak eskuratzeari dagokionez:

a) Biztanleria osoa kontuan hartzen badugu (ez bakarrik mendekoa), gizonen balorazio-tasa handiagoa izateak estaldura handiagoa dakar; zehazki, %43 handiagoa. Alde hori gazteen adin-tarteetan hasten da (17 urtera arte), %113era iristen baita; % 38ra jaisten da 18-59 adin-tartean (ugariena), eta %24ra 60-64 adin-tartean.

b) Mendeko biztanleria soilik kontuan hartzen badugu, oro har, bi sexuen estaldura-tasetan oreka dagoela ikusten da, nahiz eta zerbitzu eta prestazio jakin batzuetan gizonen gehiegizko ordezkaritza egon. Zehazki: gaixotasun mentala dutenentzako ostatueta eta eguneko zentroetan (%54 gehiago eta %44 gehiago, hurrenez hurren), eta Arreta goiztiarrean (%43 gehiago).

Iturria: GFA 2023

|                                   |      |            |
|-----------------------------------|------|------------|
| <b>Kuantifikazioa:</b>            | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Ordainketa kredituak:</b>      | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Datozen urteetako gastuak:</b> | 0,00 | ( % 0,00 ) |

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA  
**Atala:** 0320 - Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 210 - Adinekoen laguntza  
**Funtzionala:** 231 - Gizarte ekintza

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Adineko pertsonak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Lehenik eta behin, adierazi behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak mendekotasuna duten pertsonen eskaintzen dizkien baliabideak, logikoa denez, mendetasun-maila baloratzeko eskaeraren bidez eskuratzen direla. Horri dagokionez, 65 urtetik gorako taldean (adin horretatik beherako taldean ez bezala), emakumeen sarbidea gizonena baino azkarragoa da, 65-69 tartean izan ezik, tarte horretan oraindik gizonen aldeko desoreka txikia ikusten baita ( % 12,1). Mendeko pertsonen gaineko estaldura-tasetan ere oreka ikusten da bi sexuen artean, emakumeen aldeko abantaila txiki batekin (estaldura %87,3koa da, eta gizonena, berriz, %84,4koa).

Baliabideak eskuratzeari dagokionez, oro har, oreka ikusten da mendeko pertsonen estaldura-tasetan, nahiz eta zerbitzu eta prestazio jakin batzuetan gizonen gehiegizko ordezkariak egon. Zehazki: egoitza-unitate soziosanitarioak (%113), gaitasun juridikorako laguntza-neurriak (%90), laguntza teknikoak (%37).

|                                   |           |            |
|-----------------------------------|-----------|------------|
| <b>Kuantifikazioa:</b>            | 33.290,73 | ( % 0,02 ) |
| <b>Ordainketa kredituak:</b>      | 33.290,73 | ( % 0,03 ) |
| <b>Datozen urteetako gastuak:</b> | 0,00      | ( % 0,00 ) |

**GENERO BERDINTASUNeko PLANA**

**Departamentua:** 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA  
**Atala:** 0330 - Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuz Nagusia  
**Programa:** 300 - Prestazio ekonomikoak, planifikazioa eta itunak  
**Funtzionala:** 920 - Administrazio orokorra

**GENERO BERDINTASUNeko PLANA**

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Familia-ingurunean ematen diren mendeko pertsonen zaintza ez-profesionalak batez ere emakumeek egiten dituzte. Familia Ingurune Zaintzarako Prestazio Ekonomikoan (FIZPE) 10 zaintzailetik 7 emakumeak dira, zehatzago esanda % 69 emakumezkoak eta % 31 gizonezkoak. Zaintzailea ezkontidea ez den kasuetan, seme-alabak, anai-arrebak edo gurasoak badira, arrakala handitu egiten da, % 73 emakumezkoa eta % 27 gizonezkoa izanik. Profesional bat kontratatu duten (profesionalen % 96 emakumezkoak dira) eta Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) jasotzen duten familien kasuan arreta profesionalaren ordutegitik kanpoko senideen zainketak nola banatzen diren ez dakigu.

**Kuantifikazioa:** 0,00 ( % 0,00 )

**Ordainketa kredituak:** 0,00 ( % 0,00 )

**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA  
**Atala:** 0330 - Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuz Nagusia  
**Programa:** 310 - Gizarte zerbitzuen zentroetako inbertsioen plana  
**Funtzionala:** 232 - Gizarte sustapena

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Berdintasun-planak baldintza gisa ezarrita daude programa honen kargura lizitatzen diren obra- eta zerbitzu-kontratuetan. Era berean, berdintasun-klausulak jasotzen dira gizarte-zerbitzuetako zentroak sortzeko eta egokitzeko obrak finantzatzeko dituzten dirulaguntzetan. Azkenik, adinekoen egoitza-zentroetako erabiltzaileen artean emakume gehiago egotearen ondorioz, obrak egiten ari dira, errealitate hori kontuan hartuta.

**Kuantifikazioa:** 0,00 ( % 0,00 )

**Ordainketa kredituak:** 0,00 ( % 0,00 )

**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA  
**Atala:** 0340 - Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 400 - Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arreta  
**Funtzionala:** 232 - Gizarte sustapena

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

### Programak ukitzen duen kolektiboa:

Behar bereziak dituzten pertsonak (desgaituak, genero indarkeriaren biktimak, etab )

### Programak ukitutako gaitasuna(k):

Etxeko ingurunea segurua eta egokia izatea

### Beharraren deskribapen xehatua:

Indarkeria matxistari eustea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen gisa. Indarkeriatik ateratzeko eta gainditzeko laguntza gehiago eskatzeak adierazten du indarkeriaz gehiago jabetzea, baina horrek eskaria handitzea ere badakar. Aldi berean, migrazio-fluxuen gorakadak, eta, bereziki, laguntza-sarerik gabeko eta oinarritzko premiak betetzen ez dituzten emakumeenak, egoitza-zerbitzuen eskaera handiagoa eragiten du, bai eta esku hartzeko prozesu luzeagoa ere.

|                                   |      |            |
|-----------------------------------|------|------------|
| <b>Kuantifikazioa:</b>            | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Ordainketa kredituak:</b>      | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Datozen urteetako gastuak:</b> | 0,00 | ( % 0,00 ) |

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

|                       |                                                                     |
|-----------------------|---------------------------------------------------------------------|
| <b>Departamentua:</b> | 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA                |
| <b>Atala:</b>         | 0340 - Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia |
| <b>Programa:</b>      | 410 - Haur eta nerabeen babesa                                      |
| <b>Funtzionala:</b>   | 231 - Gizarte ekintza                                               |

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Haurrak eta nerabeak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegitik, gure jardunak ezin du genero-azterketa alde batera utzi, ulertzeko genero-rolen eraikuntza kulturalak eta sozialak nola eragiten duen haien bizitzetan, bereziki ahulenetan, eta haurrak eta nerabeak bizitzako une guztietan babesteko estrategia espezifikoak lantzeko, aukera-berdintasuna eta ahalduntzea sustatuz. Helburua da aitortzea genero-erolek arrisku eta ahultasun desberdinak eragiten dizkietela haurrei, eta haien premiak eta erabakiak desberdinak izan daitezkeela, haien trebetasunak, ezagutzak eta erantzuteko estrategiak bezalaxe.

Aintzatespen horrek, programa honen bidez, sozializazio-ereduak zaintzera garamatza, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabeko ahalduntze- eta garapen pertsonaleko prozesuak ahalbidetu eta indartuko dituztenak. Programa, baliabide eta profesional guztiek programazio/esku-hartze/ebaluazio ziklo osoan genero-inplikazioak kontuan hartzea eskatzen digu, adingabeen protagonismoa bermatuz. Horregatik, ezinbestekoa da begirada genero-desberdintasunetan eta -estereotipoetan jartzea, genero-desberdintasun errepikari mota guztien detekzio goiztiarrean sakonduz, gure esku-hartzearen bidez ekitatearen, justiziaren eta genero-berdintasunaren ikuspegitik inpaktu mesedegarria lortzeko.

|                                   |               |             |
|-----------------------------------|---------------|-------------|
| <b>Kuantifikazioa:</b>            | 11.262.044,10 | ( % 14,34 ) |
| <b>Ordainketa kredituak:</b>      | 11.262.044,10 | ( % 14,34 ) |
| <b>Datozen urteetako gastuak:</b> | 0,00          | ( % 0,00 )  |

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA  
**Atala:** 0350 - Erakunde Publikoen Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 500 - Foru Erakunde Publikoen Kudeaketa  
**Funtzionala:** 231 - Gizarte ekintza

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan arreta jasotzen duten gehienak emakumeak dira. Zentroetan lan egiten duten langileak, bereziki zaintzaileak. Zentroen trantsizioko liburu berdeak ikuspegi hori prozesuan txertatzea jasotzen du bere ekintza-ildoan artean. Egoera aztertzen eta diagnostikatzen ari gara. Indarkeria matxista prebenitzeko protokolo bat diseinatu da, eta gaur egun Zentroetan gidatuko da 2027an ezartzeko.

|                                   |      |            |
|-----------------------------------|------|------------|
| <b>Kuantifikazioa:</b>            | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Ordainketa kredituak:</b>      | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Datozen urteetako gastuak:</b> | 0,00 | ( % 0,00 ) |